

Kale Erabileraren Neurketa 2001

Soziolinguistika aplikatuan ikastaroa

Tolosa, 2003ko martxoaren 22a



Euskal Soziolinguistika Institutua *Sortzen*



Ikerketaren kokapena

- Kaleko ahozko erabilera da aztergaia.
- 1989az geroztik lau urtean behin egiten den ikerketa da.
- Euskal Herri osoa aztertzen da.
- Behaketa bidez jasotzen dira datuak.
- Lehen EKBk egiten zuen, orain SEIren eskutik egiten da.





Ikerketaren metodologia (I)

- Metodologia bera neurketa guztietan.
- Tipologiaka udalerrien aukeraketa egin.
- Udalerri bakoitzean ibilbidea (k) zehaztu.
- Ibilbide bakoitzean neurtzaileak bikoteka arituko dira.
- Neurraldiero hiru aldagai aztertuko dira.



Ikerketaren metodologia (II)

- **Datu bilketa:** behaketa bidez, fitxa-orriak erabiliz.

EUSKARAZ							ERDARAZ				
	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	G		Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	G
Emakumezkoak	IIIIII	III	II	IIII	15		II	II	IIII	II	10
Gizonezkoak	IIII	II	I	II	9			III	III	IIII	9
G	10	5	3	6	24		2	5	7	6	20



Metodologia III

- **Datu bilketarako OHARRAK**
 - Elkarriketan parte hartzen duten kide guztiak hizketan entzuten ez baditugu ere, guztien datuak jasoko dira, entzun diren pertsonak darabilten hizkuntzan.
 - Neurtzaileekin hitz egiten dutenen datuak ez dira jasoko.
 - Zalantzazko kasuak ez dira jasoko.





Ponderazioak eta kalkuloak

- **Udalerri bakoitzean neurtutako pertsona kopuruari, bertako hiztun-komunitate osoaren pisua emango zaio.**
- **Hego EHan biztanleria-tamainaren eta ezagutzaren arabera sortu diren 12 tipologietan, bakoitzean neurtutako %10aren batzbestekoa gainontzeko %90ari aplikatuko zaio.**





Emaitzen interpretazioa (I)

- **Kaleko elkarrizketetan euskararen erabilera zenbatekoa den neurtzen da. Irakurketa: “Entzundako elkarrizketetan 100 pertsonetik X euskaraz ari ziren”.**
- **Kaleko elkarrizketetan euskararen erabilera neurtzen da, EZ ZENBAT EUSKALDUNEK hitz egiten duten euskaraz.**
- **Portzentaia zehatzak baino esanguratsuagoa da urtetan datuek erakusten duten JOERA.**



Emaizen fidagarritasuna

- **Kale Neurketak hamabi urteko ibilbidea du eta dagoeneko metodoa aski kontrastatua dago.**
- **Emaizak adierazgarriak dira eskualde, lurralde eta Euskal Herri mailan. Ez ordea, udalerri mailan (neurtutako elkarrizketa kopurua txikia baita).**






Emaitzen azterketa

- Erabilera orokorra
- Adin taldekako erabilera
- Sexuaren arabera erabilera
- Talde tamainaren arabera erabilera (Txillardegiren eredu matematikoa).
- Haurren presentziaren arabera erabilera
- Datu horiek eremuka, ezagutza eta biztanleria-tamainaren arabera tipologiak.




EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Euskararen kale erabilera Euskal Herrian




EHko erabileraren IV Kale Neurketa




EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Erabilera herrialdeka



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Arabako erabileraren bilakaera




* Datu hau estimatua da



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Arabako eskualdeen erabilera



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Bizkaiko erabileraren bilakaera



* Datu hau estimatua da



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Bizkaiko erabileraren bilakaera




* Datu hau estimatua da



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Bizkaiko eskualdeen erabilera



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Gipuzkoako erabileraren bilakaera




* Datu hau estimatua da



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Gipuzkoako eskualdeen erabilera



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Nafarroa Garaiko erabileraren bilakaera




* Datu hau estimatua da




EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Nafarroa Garaiko eskualdeen erabilera



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako erabileraren bilakaera




* Datu hau estimatua da




EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Adin taldekako erabilera Euskal Herrian




EHko erabileraren IV Kale Neurketa



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Arabako adin taldeen erabileraren bilakaera




* Datu hau estimatua da



EHko erabileraren IV Kale Neurketa


Bizkaiko adin taldeen erabileraren bilakaera



* Datu hau estimatua da

EHko erabileraren IV Kale Neurketa


Gipuzkoako adin taldeen erabileraren bilakaera



* Datu hau estimatua da




EHko erabileraren IV Kale Neurketa



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako adin taldeen erabilera



* Datu hau estimatua da




EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Erabileraren bilakaera gaitasun-mailaren arabera




EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Erabileraren bilakaera biztanle kopuruaren arabera




EHko erabileraren IV Kale Neurketa




EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Erabilera sexuaren arabera lurraldeka



EHko erabileraren IV Kale Neurketa

Adin taldekako erabileraren diferentzia sexuaren arabera





Bi mikroazterketa

- **Txillardegiren eredu matematikoa.
Erabilera isotropikoa.**
- **Erabilera eta ezagutzaren arteko
korrelazioa**





Txillardegiren eredu matematikoa

Eman dezagun laukote batean (A, B, D, eta **C**) hiru elebidun ditugula: A, B, eta D.

Laukote horretan euskararen **ezagutza** % 75ekoa da, lautik hiru baitira euskaraz hitz egiteko gai. Azter dezagun jarraian euskararen **erabilera** konbinaketak eginaz:


EUSKARAZ: AB, AD, BD; ABD

GAZTELANIAZ: AC, BC, DC; ABC, BDC, ADC; ABCD

Ondorioa garbia da: **hamaika taldetatik** —6 bikote, 4 hirukote eta laukote 1— **lau taldetan** arituko dira euskaraz — 3 bikotetan eta hirukoteko batean—. Formulak aplikatuta, % 75eko ezagutza baterako erabilera isotropiakoa % 36,4koa da.



Erabilera eta ezagutzaren arteko korrelazioa (I)



Erabilera eta ezagutzaren arteko korrelazioa (II)

Gaitasun-maila	Erabilera	Indizea
%5	%2	0,40
%20	%9	0,45
%30	%14	0,47
%40	%21	0,53
%60	%39	0,65
%80	%61	0,76

	GAITASUN-MAILA		ERABILERA		
	Gaitasun-maila91	Gaitasun-maila96	Erabilera97	Erabilera93	Erabilera01
Arabako Lautada	%7,6	%13,7	%3,0	%2,8	%2,9
Tolosalde	%68,2	%72,3	%47,6	%46,7	%48,1



Erabileraren Neurketa gune txikiagotan (I)

- **SEI Elkarteak ikastetxeetako eremu informaletan erabilera neurtzeko metodoa sortu du, Kale Neurketaren metodologian oinarrituta.**
- **Metodo hori bera gaztetxoan aisialdi gunetan neurketak egiteko erabili da.**





Erabileraren Neurketa gune txikiagotan (II)

- Metodoa aplikatzeko kontuan hartu beharreko IRIZPIDE nagusiak:
 - DATU-BILKETA
 - UNIBERTSOA
 - Orotara zenbat pertsona
 - Zenbat euskaldun
 - LAGINA
 - EMAITZEN AZTERKETA



Erabileraren Neurketa gune txikiagotan: DATU-BILKETA

- **Hizkuntza-gertaerak neurtuko dira.**
- **Diskrezioa. Horretarako kontuan izan:**
 - Neurtzailearen aukeraketa.
 - Datu-bilketa modua
 - Fitxa-orri sinpleak: hiru aldagai (guztiak neurtzaileak betetzeko modukoak).



Erabileraren Neurketa gune txikiagotan: UNIBERTSOA

- **UNIBERTSOAren ezaugarriak**
 - Orotara zenbat pertsona
 - 60 pertsonatik gorako guneak izatea.
 - Zenbat euskaldun
 - Euskaraz ongi hitz egiten dutenen kopurua %25etik gorakoa izatea.



Erabileraren Neurketa gune txikiagotan: LAGINA

- **Datuak fidagarriak izateko ELKARRIZKETA kopuruari erreparatu:**
 - Neurtu beharreko elkarrizketa kopurua, gune horretan dagoen pertsona kopuruaren erdia izan behar du, gutxienez.



Neurketa gune txikiagotan: EMAITZEN AZTERKETA

- Neurketa guztietan metodoa berdin aplikatzea beharrezkoa da, datuen bilakaera aztertzeko.
- Eraitza batzuk orokorrak izango dira, beste batzuk gune ezpezifikoei dagokienak.



ERABILERAREN DIAGNOSIA: “Erabileran eragin” Jardunaldietako ondorioak

- **Hizkuntza politika**
- **Normalkuntza egitasmoak**
- **Transmisioa**
- **Erabilera gizartean**
- **Gaitasuna eta erabileraren arteko lotura**



ERABILERAREN DIAGNOSIA

- **HIZKUNTZA POLITIKA**
- **ERABILERAN ERAGIN TXIKIA:** Euskal Herrian indarrean dauden hizkuntza politikek (batetik bestera alde handia egonda ere) oso eragin mugatua dute. Hiztunen eguneroko erabilera ohiturak aldatzeko edo euskararen erabilerari bidea zabaltzen dioten portaera positibo berriak bultzatzeko mugatuegiak dira.



ERABILERAREN DIAGNOSIA

- **NORMALKUNTZA EGITASMOAK**
- **TRESNA GEHIAGO ETA HOBEAK:** Erabilera bultzatu edo erraztu dezaketen arloetan (transmisioa, eskola bidezko euskalduntzea, aisialdia, hizkuntza errepertorioa...) hutsune handiak ditugu. Tresna gehiago eta hobeak behar dira arlo horietan.
- **DISKURTSOAK HOBETO ZUZENDU:** Erabileraren inguruko mezuak eta kanpainak prestatzerakoan lehenik hartzailea nor izango den zehaztu behar da. Mezu berarekin ez ditugu euskaldun trebeak eta traketsak mintzatzen jarriko.
- **IKUSPEGI HOLISTIKOA EZINBESTEAN:** Erabileran eragiteak ikuspegi holistikoa eskatzen du. Erabilera eragile ugariren menpeko emaitza da eta ikuspegi horrekin jardun behar gara.
- **AMAREN PROTAGONISMOA:** Hizkuntza planifikazioan amaren eragina handia dela dakigun arren, ez zaio neurriko protagonismoa aitortu normalkuntza egitasmoetan.
- **ERREPERTORIOA OSATZEKO EGITASMOAK:** Oso gutxi dira erregistro gabeziak edo erregistroaren hutsuneak gainditzera bideratutako egitasmoak.



ERABILERAREN DIAGNOSIA

- **TRANSMISIOA**

- **GAITASUN ERLATIBOA ETXEAN:** Hitzunaren gaitasun erlatiboak berebiziko garrantzia du euskaraz mintzatzeko.
- **HIZTUN AKTIBOAK, ETXEKOAK:** Egun euskarak dituen hitzun aktiboak euskara etxean ikasitakoak dira gehien bat.
- **INGURU HURBILA EZ DA ASKI:** Euskal Herrian hitzunaren inguru hurbila euskalduna izatea ez da aski euskararen transmisioa ziurtatzeko.
- **GIZARTE ALDAKETAK ERAGIN HANDIA:** Gizarte egituraren gertatzen diren aldaketek berebiziko eragina izango dute euskararen erabileran. Arretaz jarraitu behar dira familian edo lagunartean gertatzen ari diren aldaketa sozialak.
- **KONTZEPTUA BERRITU BEHARRA:** Transmisio eragile berriak sortzen ari dira. Gizarteak bizi dituen aldaketen eraginez familia ez da hizkuntza transmisioa egiten duen bakarra. Transmisioaren kontzeptua berritu egin behar dugu.



ERABILERAREN DIAGNOSIA

- **ERABILERA GIZARTEAN (I)**
- **EUSKALDUNGOA ALDATU:** Azken hogeita hamar urteotan euskaldunen proportzioa aldatu ez bada ere, euskaldunen komunitateak errotiko aldaketa bizi izan du. Garai bateko komunitate euskaldunaren ezaugarri nabarmenak ziren: zahartua, baserri-girokoa, eta eskolatu gabekoa. Gaur egun komunitate gazte, kaletarra eta eskolatua da.
- **OHITURAREN INDARRA:** Erdaraz mintzatzea euskaldunen artean, ongi errotutako ohitura da eta euskaldunak eroso sentitzen dira portaera horrekin. Euskaldunen artean egoera hori deseroso bihurtzeko behar den indarririk ez dugu oraindik.
- **ARAU ERDALZALEAK:** Gure gizartean gutxi dira euskara erabiltzea eskatzen/eragiten duten egoerak. Onenean jarrita ere, egoera horiek ez dute hiztun guztien hautuan erabateko eraginik.



ERABILERAREN DIAGNOSIA

- **ERABILERA GIZARTEAN (II)**

- **ERABILERA GERTAERA KOLEKTIBOA:** Erabilera taldeari dagokion fenomeno da. Erabilera eragiten duen indarra ez da indibiduala, kolektiboa, soziala baizik..
- **ERABILERA MODUAK:** Ukipen egoeran, hizkuntzaz baliatzeko modu ugari dago. Zenbaitentzat lehen hizkuntza dena, beste batzuentzat lan hizkuntza izan daiteke. Erabileraz mintzatzean eta normalkuntza egitasmoak prestatzean horri arreta handiz erreparatu behar zaio.
- **KOMUNITATEAREN BIZI-INDARRA:** Eremu geografiko bakoitzean erabilerak izango duen bilakaera bertako komunitatearen bizi-Indar etnolinguistikoak baldintzatuko du.
- **AHULAK ETA INDARTSUAK:** Erabileraren bilakaeran bi izango dira eskenatoki nagusiak: bizi-indar indartsua dutenak eta bizi-indar ahula dutenak. Indartsu dabilzan horietan erabilerak aurrera egingo du eta ahul dabilzan horietan, berriz, atzera. Erdibidean dauden kasuak ugari izango dira eta horietan serio lan egin beharko da komunitatea indartze aldera.

ERABILERAREN BILAKAERA: Hurrengo urteetan ezinbestekoa izango da ezagutza maila %25 edo hortik gorakoa izatea kale erabileran hazkunde aipagarriarik gerta dadin.



ERABILERAREN DIAGNOSIA

- **GAITASUNA ETA ERABILERA**

- **DENTSITATEA ERABAKIOR:** Hizkuntza gaitasun egokia eta erabilera ohiturak sendotzeko berebiziko garrantzia du hiztunaren sarean dagoen euskaldun dentsitateak.
- **DENTSITATEA HANDITU BEHARRA:** Erabileran hazkunde nabarmena gerta dadin, gizartean dagoen euskal hiztunen proportzioan aldaketa kuantitatiboa gertatzea ezinbestekoa da.
- **ERREPERTORIO HORNITUA:** Errepertorioa behar bezain hornitua izateak hiztunari hizkuntzaz baliatzeko aukerak ugaritzen dizkio.
- **GAITASUN ERLATIBOA BEHARREZKOA:** Erabileran eragin nabarmena duen faktoreetako bat GAITASUN ERLATIBOA da. Gaur egun, euskaraz mintzatzeko gaitasun erlatiboa ziurtatzen duen ezaugarri ia bakarra hiztunaren lehen hizkuntza euskara izatea da. Beraz, lehen hizkuntza euskara ez duten hiztunen gaitasun erlatiboa hobetzeko bideak sortu behar ditugu.



ERABILERAREN DIAGNOSIA

- **IRAKASKUNTZA**

- **HEZKUNTZAN ERABILERARI LEKU EGIN:** Erabilera maila jakin bat izatera iritsi gabe, nekez bermatuko da hiztun baten hizkuntza gaitasuna. Hizkuntza bat ikasteko, beraz, ezinbestekoa da, ikasketa prozesuan erabilerari dagokion lekua eta eginkizuna aitortzea.
- **ESKOLAREN GARRANTZIA:** Euskaldun proportzioa txikia den eskualdeetan eskola bidezko euskalduntzeak berebiziko garrantzia du. Hori da inguru hori euskalduntzeko bide nagusia eta maila horretako garrantzia aitortu behar zaio.
- **KOMUNIKAZIO GAITASUN TXIKIA:** Eskola bidez euskaldundutako euskaldunak: formazio maila altukoak eta hizkuntza gaitasun txikikoak dira.
- **HIZTUN AKTIBO IZATEKO EZINTASUNA:** Gaur egungo gazte gehienek duten hizkuntza gaitasunarekin nekez izango dira euskararen aldeko hiztun aktibo.
- **HIZKUNTZA ALDAEREN ERREPERTORIOA OSATU:** Gaur egun, hiztun gehienek euskararen errepertorio oso murrizta dute. Irakaskuntza da eredu normatiboaz jabetzeko gunea. Euskararen aldaera normatiboa ezagutu gabe sortzen diren aldaera informal eta kolokialak ukipen linguistikoaren eragin handia dute. Alternantzia linguistikoan, erdara da protagonista.